

Aro berriaren atarian

Paraguaiko hauteskundeak Fernando Lugok irabazi ditu. Latinoamerikako herrialde fronte aurrerakoientzat albiste pozgarria eta Amerikako Estatu Batuentzat ez hainbeste. Etxeko lan asko ditu Lugok, aurreko 60 urteetan bertako oligarkiak agindu baitu.

LUISMI UHARTE

APIRILAREN 20AN, Fernando Lugok, Askapenaren Teologiaren apezpiku ohiak eta Alianza Patriótica para el Cambio koalizioaren hautagaia Paraguaiko hauteskundeak irabazi zituen, lurrikara politikoa eraginez herrialde horretan. Izan ere, bertako oligarkia-aren alderdi historikoak, hau da, Partido Colorado-k, 60 urte jarraian gobernuan iraun ondoren, –Stroessner jeneralaren diktadura barne (1954-1989)–, botere exekutiboa galdu du, Mexikoko PRIri gertatu zitzaion bezalaxe. Zentro-ekzerrak irabazi du lehenengo aldiz herrialde honen historian, eta horrexegatik inflexio puntutzat jotzen dute azterzaile gehienek.

Paraguai, Hego Amerikan hainbeste urtetan “ahaztua” izan den errepublika, lehenengo planora igaro da azken asteotan. Bi erraldoien artean kokatua, 400.000 km koadroko herri “txiki” honek 6 milioi biztanle baino gehiago ditu, eta horien %50a nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi da. Latinoamerika osoan, bertako hizkuntza gehien mantentzen duen herria da Paraguai. Guania eguneroko komunikazio tresna da, batez ere etxeko erabileran (%59), gaztelaniaren aurretik. Hego Amerikako bigarren herrialderik txiroena, Boliviaren ondotik, eta mendetan pilatutako arazoz beteriko herrialdea da Lugo lehendakari berriak topatuko duena.

Aurre egin beharko dion arazo handienetakoa nekazaritzarena izanen da. Soja transgenikoaren eredu nagu-



Goiko irudian Fernando Lugo Paraguaiko presidente hautatu berriak apirilaren 20ko hauteskundeetarako prestatutako kanpaina. Ezkerrean, Blanca Ovelar. 60 urte boterean egin dituen Partido Coloradoren hautagaia izan da hauteskundeetan.

si bihurtu da azken bi hamarkadetan, ondorio latzak ekarri garapenari, ingurumenari eta langileei. Bi milioi hektarea baino gehiago soja mota honekin ereinda daude, luraren kalitatea zartatuz, eredu ekonomikoa eraldatuz, luraren jabegoa bilduz, eta okerrean, milaka nekazari jaurtiz hirietara edota atzerrira. Lugok agindu duen nekazaritza eraldaketa ez da berez oso ausarta, Estatuaren lurrik besterik ez baititu berreskuratu nahi, baina dena den, lur publikoak lapurtu dituzten lurjabeekin gatazka gogorra aurreikusten da.

Brasil eta Argentinarekin indarrean dagoen energia itunaren birnegozia-zioa agenda politikoaren lehenengo puntuetakoa bilakatuko da. Diktaduren garaian sinaturiko Itaipu eta Yacyreta Itunak, Brasil eta Argentinarekin hurrenez hurren, aldarazten saiatuko da Lugo. Gaur egun, Paraguaik bi herrialde horiei energia hidroelektrikoa “oparitzen” segitzen du, kostu-prezioran, eta gobernu berriaren helburu zehatza izanen da merkatu-preziora lortzea, harreman ekonomikoa orekatu nahian. Aldi berean, Mercosurren (Mercado Común del Sur) ere, Para-

“Jarrera duinagoa eta subiranoagoa aurreikusten da Lugorekin”

Augusto Dos Santos, Paraguaiko kazetaria, Universidad Nacional de Pilarreko irakaslea, irrati zuzendaria eta *Somos Paraguay* egunkariaren argitaratzailea, ARGIArekin mintzatu da, hauteskundearen emaitzez eta Lugoren Gobernuaren etorkizunaz.



Zer nolako jarrera hartuko du Lugoren Gobernuak Mercosurren dauden asimetriak kontuan izanik?

Jarrera duinagoa eta subiranoagoa aurreikusten da, aurreko gobernuekin alderatuta. Egungo Mercosur eraikuntza polita da, baina logela hutsezkoa Paraguairentzat, horre-

gatik, Lugo “Egiturazko Fondoek” bultzatzen duten asistentzialismoaren aurka agertu da, eredu simetrikoagoa exijituz.

Nicanor Duarte lehendakari ohiak Estatu Batuetako Armadaren presentzia eta immunitatea onartu zuen 2005ean, kritika ugari jasoz. Zein da Lugoren planteamendua gai honen inguruan?

Azken boladan, inork ez du hitz egin horri buruz. Dena den, subiranotasunaren aldeko diskurtso tinkoa erabili du Lugok lehenengo unetik. Beraz, ez dut uste armada estatu-batuarraren presentzia egonkorra baimenduko duenik.

Lugok programan eta kanpaina politikoan itun energetikoak Brasilekin eta Argentinarekin birnegoziatuko dituela ziurta-tu du. Zein dira birnegoziatioaren aukerak eta mugak, kontuan izanda Evo Moralesek izandako arazoak gasaren negoziatioetan Brasilekin?

Zilegiena da merkatu-prezioak ezartzea energia hidroelektrikoaren salmentan, kostu-prezioak gaituz, baina ez dut uste oso aldaketa erradikalak lortuko direnik epe motzera. Hala ere, Celso Amorin, Brasilgo Atzerri ministroaren azken adierazpenak oso itxaropentsuak izan dira, prezioak orekatzearen alde agertu baita.

guaik bat egingen du bera bezain txikia den Uruguarekin, bi erraldioak hertsatzeko eta egun dauden asimetriak gaituz joateko.

Arlo politikoan, Estatuaren birfundazioa erronka galanta izanen da

Lugoren administrazioarentzat, hiru minbizi errotuta baitaude. Lehenik, sei hamarkadetan Partido Coloradok eginiko Estatuaren kolonizazioari aurre egin beharko dio, alderdi horren erroak moztuz. Bigarrenik,

botere judizialaren eraldaketa sakona ezinbestekoa izango da. Eta hirugarrenik, larriena, egiturazko ustelkeriari aurka egin nahi diola agindu du Lugok, Hego Amerikako herrialderik ustelena baita, nazioarteko instituzioen arabera.

Lehendakari berriak, emigrazioaren arazo mingarriari buruzko promesak ere egin ditu, zailtasun handiko afera dela jakin arren. Eredu ekonomiko baztertzailak milioi eta erdi paraguaiar botarazi zituen Argentina aldera ogibide bila, eta beste milaka batzuk Espainiako Estaturantz. Neurri ekonomiko ausartak hartu ezean, odoluste honek iraun egingen du.

Amerikako Estatu Batuekiko harremana ere klabea izanen da, iparraldeko potentziak bi helburu estrategiko baititu Paraguain. Alde batetik, Mariscal Estigarribia base militarra bere menpe izan nahi du Etxe Zuriak, Hego Amerikan presentzia militarra sendotzeko eta Brasil eta Argentina zaintzapean izateko. Beste alde batetik, guarani munduko ur gezaren erreserba handienetakoa bereganatu nahi du Washingtonek, etorkizun laburrean ura baliabide eskas eta estrategikoa bilakatuko baita. Lugoren gobernuaren jarrera erabakiorra izanen da.

Gaur nahiko argi dagoena da Lugoren garaipena Latinoamerikako herrialde fronte aurrerakoien aldekoa izan dela –bai fronte “gorria”rentzat, baita fronte “arrosa”rentzat ere–, eta aldi berean ez oso berri pozgarria Amerikako Estatu Batuek gidatzen duten fronte kontserbadorearentzat. Etorkizun interesgarria, zalantzarik gabe. ■



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 518 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com